

PROTOKOLOA, IKASLEEN GAIETARAKO BATZORDE PAREKIDEAREN FUNTZIONAMENDURAKO

Batzorde Parekideak 2013ko maiatzaren 16an onartua.

Oinarri duen araua: *UPV/EHUko Ikasleen Arautegia, V. kapitulua, 48. artikulua*

1. artikulua.- Eginkizunak

Aholku batzordea da eta ikasleen interesei zuzenean eragin diezaieketen gai guztietarako bildu behar da. Batzorde hori ikasleen eta errektorearen gobernu taldearen arteko informazio bidea izango da, eta aholkularitza eta babesa eskainiko dio. Haren txostenak ez dira nahitaezkoak izango, ez eta lotesleak ere (*Ikasleen Arautegia, V. kapitulua, 48.1 artikulua*).

2. artikulua.- Osaera

1. Parekidetasunez osatuko dute kontseiluburuak hautatzen dituen UPV/EHUko Ikasleen Kontseiluko kideek eta errektorego-taldeko ordezkariak. Horien artean, nahitaez egongo dira ikasleen gaietarako eskumenak dituen errektoreordea eta aztertu beharreko gaiari buruzko eskumenak dituen errektoreordea. (*Ikasleen Arautegia, V. kapitulua, 48.2 artikulua*)
2. UPV/EHUko Ikasle Kontseiluko buruak aukeratu ahal izango ditu batzordean ikasleen ordezkari izango direnak kontuan hartuta bileran aztertuko diren arloak eta gaiak. Bestalde, errektoreordeek, gerenteak eta idazkari nagusiak, aparteko kasuetan, zuzendaritza taldeko beste pertsona bati eskuordetu ahal izango diote partaidetza.
3. Batzordeko burua ikasleen arloko eskumenak dituen errektoreordea izango da. Ikasleen ordezkarietako batek idazkari lanak egingo ditu eta bilerako akta egingo du.
4. Oro har, batzordeak, guztira, 6 kide izango ditu: 3 ikasleen ordezkari izango dira eta 3, zuzendaritza taldearenak.
5. Zuzendaritza taldearen aldetik, bileran aztertu beharreko gai kopuruaren araberako partaide kopurua joan daiteke bilerara, baina bakoitzak bere eskumeneko gaietan hartuko du parte. Ikasleen arloko eskumena daukan errektoreordea bilera osoan egon beharko da, baina zuzendaritza taldeko gainontzekoak kasuan kasuko eskumenarekin lotura daukan gaia aztertzen denean baino ez dira egongo.

3. artikulua.- Deialdia eta aztergaien zerrenda

1. Batzordea, gutxienez, sei hilabetean behin bilduko da, baina maizago biltzeko aukera izango du, kideen herenak hala eskatzen badu (*Ikasleen Arautegia, V. kapitulua, 48.3 artikulua*). Gainera, eraginkortasunaren mesedetan, bilerarako eskaria egin eta 15 eguneko epean bilduko ba batzordea (berdin dio eskaria zuzendaritza taldeak egin duen edo Ikasle Kontseiluak).
2. Bilerarako deia bilera baino gutxienez 48 ordu lehenago helaraziko zaie bileran parte hartuko dutenei. Bilerako deian ondokoak ageriko dira jasota: aztergaien zerrenda, bilera non eta zein egunetan egingo den eta bilera zein ordutan hasiko den eta zein ordutan bukatu. Bilera deiari bileran aztertuko diren gaien buruzko agiriak erantsiko zaizkio.
3. Bilera bakoitzean gutxienez delata hiru gai aztertuko dira, eta ikasleen arloko eskumenak dituen errektoreordearen eta Ikasle Kontseiluaren artean adostuko dituzte kontuan hartuta alderdi bakoitzarentzat garrantzia handien daukaten gaiak.
4. Gaien hurrenkera zehaztean, kontuan hartuko dira egoera bereziak, adibidez, kideren batzuk bilerako zati batean baino ez direla egongo. Horrelakoetan, lotuta dauden gai guztiak jarraian aztertuko dira.
5. Bileraren hasieran, batzordeko kideek adostuko dute gai bakoitzerako zenbat denbora izango duten, kontuan izanda bilera zein ordutan hasi eta amaituko den.
6. Bilerak txandaka egingo dira hiru campusetan, betiere, kasuan kasuko campuseko kideren batek hartu behar badu parte bileran.

4. artikulua.- Aktak

1. Bileraren akta egingo da ondokoak jasota, nahitaez: bertaratuen izen-abizenak, aztergaien zerrenda, bilera non eta noiz egin den, eztabaida gai nagusiak eta hartutako erabakien edukia.
2. Bilera bukatzean, agiri batean jasoko dira bileran hartutako erabakiei lotuta (erabakirik hartu baldin bada) alderdi bakoitzak hartu dituen konpromisoak. Agiri hori ez da aktatzat hartuko.
3. Akta Batzorde Parekidearen hurrengo bileran onartuko da. Akta hurrengo bilerako kideei bidaliko zaie, bai eta aurreko bilerakoei ere.

Donostia, 2013ko maiatzaren 16a.